



# Motor hotsak berriro Aiastian



## Jose Luis Diez Barbero

2024ko ekainaren 25ean hil zen, 77 urte zituela.  
Sendiak bihotzez eskertzen ditu jasotako doluminak,  
bai eta hileta elizkizunetara agertu izana ere.

**Gure ondotik joan zara,  
baina betiko izango zaitugu gure bihotzetan.**





## Jose Luis Diez Barbero

2024ko ekainaren 25ean hil zen, 77 urte zituela.





**Zure izaera eta umore fina beti gurekin.**

Ostiraletako kuadrilla



**b**  
barren

**Eskertzak eta urteurrenak**  
Barren astekarian eta [barren.eus](http://barren.eus) webgunean.

 **943 743 704 / 943 744 112**  
 **688 769 657**  
 [barren.publi@elgoibarkoizarra.eus](mailto:barren.publi@elgoibarkoizarra.eus)  
 **Aita Agirre Kulturunea, 3, 3. ezk**

# ETXEBERRIA

## EHORZKETA-BEILATOKIA



**943 741 327 (24 orduz)**

**635 756 295**

**629 635 203**

**Santa Klara, 16 - Elgoibar**  
**[info@funerariaetxeberria.com](mailto:info@funerariaetxeberria.com)**  
**[www.funerariaetxeberria.com](http://www.funerariaetxeberria.com)**

**Kutxak, trasladoak eta koroak.**  
**Norbanakoei eta konpainiei zuzenduriko zerbitzuak.**  
**Erietxe zentruetan zerbitzuak.**



Argitaratzailea:



Babeslea: Laguntzaileak:



Aita Agirre Kulturgunea, 3, 3. ezk.  
20870 ELGOIBAR

☎ 943 744 112 - 📞 688 655 658

Publizitatea: ☎ 943 743 704 - 📞 688 769 657

[barren@elgoibarkoizarra.eus](mailto:barren@elgoibarkoizarra.eus)

[barren.publi@elgoibarkoizarra.eus](mailto:barren.publi@elgoibarkoizarra.eus)

[www.barren.eus](http://www.barren.eus)

BARRENEK bere gain hartzen du espazio arazoengatik iragarkiak lekuz aldatzeko eskubidea. Barrenek ez du bere gain hartzen Iritzia, Hitz eta klik eta gutunak ataletan adierazitakoen erantzukizunik. **Koordinatzailea:** Ainhoa Andonegi. **Kazetariak:** Ainhoa Andonegi, Asier Orbea, Ainara Argoitia. **Hizkuntza arduraduna:** Ainara Argoitia. **Publizitatea:** Leire Rubio. **Maketatzailea:** Zaloa Arnaiz. **Atari digitaleko arlo teknikoaren arduraduna:** Aitor Lauzirika. **Administraria:** Amaia Arrizabalaga. **Kolaboratzaileak:** Edurne Izagirre, Paula Heras, Ane Astiazaran, Izaro Etxegibel, Iñaki Goitia, Jose Ramon Cabrera, Alex Segade, Ane Kortaberria, Asier Guisasaola, Maialen Sanchez, Lere Kerexeta, Nagore Cancio **Inprimategia:** Gertu Koop.E. **Tirada:** 4.700 ale. **Lege gordailua:** SS-1.038/92 ISSN 1138-1855.



[facebook.com/barrenaldizkaria](https://facebook.com/barrenaldizkaria)



[twitter.com/barreneus](https://twitter.com/barreneus)



[instagram.com/barrenaldizkaria](https://instagram.com/barrenaldizkaria)

Leire Kerexeta Berasaluze

Ikaslea

## Ezezagunak izatetik, lagun izatera



***"Nire bizitzan arrasto ezabaezina utzi duten pertsona zoragarriak ezagutu ditudan agertokia ere izan da unibertsitatea"***

23 urterekin, bizitzako momentu erabakigarri batean nago: unibertsitateko etaparen itxiera. Emozio kontrajarriz beteriko une honek, azken urte eraldatzaile eta formatzaileen inguruan hausnartzera bultzatu nau. Unibertsitatea ez baita ikasketa akademikorako gune bat bakarrik izan; nire bizitzan arrasto ezabaezina utzi duten pertsona zoragarriak ezagutu ditudan agertokia ere izan da.

Unibertsitateko ikasgai bakoitzak, azterketa bakoitzak, eta proiektu bakoitzak bultzatu naute munduaz dudak ikuskera eta munduan dudak lekua moldatzen. Hala ere, liburu eta ikasgeletatik harago doa etapa hau; alegia, bertan eraiki eta landu ditudan harremanetara.

Zorionez, esparru akademikoan ez ezik, eremu pertsonalean ere nirekin hainbat afizio partekatzen dituen pertsona bikainak aurki ditut. Horien eguneroko laguntza eta animoak funtsezkoak izan dira unibertsitateko bizitzak dakartzan erronkei aurre egiteko.

Orain dela 5 urte ezezaguna zen lekua etxe bihurtu da, eta han ezagututako pertsonak ere, ezezagun izatetik lagun izatera pasatu dira. Elkarrekin barre, negar eta hainbat ikasketa ordu pasatu ditugu, beti gordeko ditudan oroitzapenak sortuz. Zalantzarik gabe, etapa honetatik daramadan oparirik handiena dira.

Unibertsitateko ikasketak amaitzeak ziurgabetasunez, baina aldi berean aukerez betetako aro berri baten hasiera markatzen du. Itxiera hau hasiera berri bat besterik ez da, ikasitakoa aplikatzeko eta hazten jarraitzeko gonbidapena. Mundu profesionalean murgiltzen garen heinean, lortutako ezagutza ez ezik, aberastu gaituzten harremanak eta esperientziak ere gurekin daramatzagu. Eskertuta eta hunkituta sentitzen naiz datorrenegatik. Erronka handiak datoz, baina badakit bide berri honetan ere azken bost urteetan ezagutu ditudan moduko pertsonen inguratzen banaiz, guztia errazagoa izango dela.

*BARREnek ez du bere gain hartzen Iritzia eta Eskutitzak ataletan adierazitakoen erantzukizunik. Eskutitzak ondo identifikatuta egon behar dute. Ez ahaztu izen-abizenak, NANA eta telefonoa jarzea. Bidali helbide honetara: barren@elgoibarkoizarra.eus*

-----

### **Ongi etorri eztabaidak, ez, ordea, irainak eta deskalifikazioak**

Ongi etorria izan dadin gure proiektu politikoak eta gestio ereduak publikoki kontrastatzeko edozein aukera. Hori bai, eztabaida, hizketa deskalifikatzailea bihurtu ez dadin, erabilitako argudioen eta haien balioaren ingurukoa izatea eskatzen du horrek.

EH Bildutik adierazi genuen ez geundela ados udal materiala alderdi politikoei (guztiei) lagatzeko protokoloa aldatzearekin. Izan ere, Udalak, protokolo berrian, ukatu egiten zien alderdi politikoei udal materialak jasotzeko, lekualdatzeko eta biltzeko zerbitzua, udal langileek jasaten zuten lan-karga arintzeko asmoz.

EH Bilduren desadostasuna hiru arrazoitan oinarritzen genuen:

- Alderdiek betetzen duten funtzio publikoa aintzakotzat ez hartzeagatik.
- Arrazoa lan-karga arintzea izanik, hartutako neurria eraginkorra ez izateagatik, alderdien eskaerek pisu espezifiko txikia baitute.
- Aldebakarreko erabakia hartzeagatik.

EAJren erantzun idatziak ez die emandako argudioei erantzuten. Esan ez dugun zerbait egozten digute, baieztapen faltsua botatzen dute, lekuz kanpoko balorazioa egiten dute eta, azkenik, modu zakarrean deskalifikatzen gaituzte.

- Egin ez dugun baieztapena. EH Bilduk ez du salatu beste alderdi politikoen aldean desberdin tratatuak izatea. Salatu du alderdi politikoak (guztiak) irabazi-asmoa duten eragile pribatuak bezala tratatzea ez duela zentzurik.
- Baieztapen faltsua. Ez da egia elkarteak, alderdiak bezalaxe, materiala tokiz mugitzeaz arduratzen direla. Elkarteei muntaketa eta bilketa zerbitzua mantentzen zaie.
- Lekuz kanpoko balorazioa. Azpiegitura publikoen erabilera desegokitzen jotzen dute eta gure lana Udalaren kontura egitea leporatzen digute.

Legeriak alderdiei ematen dien funtzio publikoa betetzeko material publikoak erabiltzea aurpegia gorritzeko modukoa dela esatea lekuz kanpo dago, batez ere denok ezagutzen ditugunean euskal geografian zehar ondasun publikoa beren onurarako erabili duten kudeatzaileak.

d. Deskalifikazio zakarrak. Inongo oinarririk gabe gezurtiak eta faltsifikatzaileak garela leporatzea debate serio baten muga guztiak gainditzea da. Baina, ez gara lokatzetan sartuko.

Arazoa aztertzen eta konpontzen lagunduko diguten argudio eta arrazoibide berriak aurkeztu ezean, gure aldetik amaitutzat ematen dugu eztabaida.

### **EH Bildu, Elgoibarko mahai politikoa**

#### **Azken otarrearen zozketa**

Bihar, ekainak 29, Elgoibarren azken hamarkadotan astero egin izan dugun euskal preso, iheslari eta deportatuen eskubideen aldeko elkartasun otarrearen azken zozketa egingo dugu, eta zozketa horren ostean, zozketa hori egiteari utziko diogu behin betiko. Hala ere, aipatu beharra dago oraindik kolektibo honen behar ekonomikoak hor dirauela. Arazoa konponbidean egon arren, ez da konpondu.

Hori dela eta, eguerdiko 13:15ean, azken zozketarekin bat eginez, Errosario kalea eta Kalegoen plazak bat egiten duten kantoian, ekimen horretan parte hartu edo laguntza eskaini diguten elgoibartar guztioi eskerrak emateko ekitaldi xume bat egingo dugu.

Musika eta bertsoak izango dira eta ez dira faltako mokadu eta tragoxkaren bat edo beste, barruak berotzeko. Mila esker denoi! Guztiok zaudete gonbidatuta!

### **Otarraren Lagunak**

## Artekaleko eskailera mekanikoak kendu dituzte, igogailua jartzeko

**M**aiatza bukaeran hasi zituzten Artekalen igogailu publiko bat ipintzeko lanak, eta matxuratuta zeuden eskailera mekanikoak kendu zituzten astelehenean, garabi handi baten laguntzarekin. Kalkulu eta probaldi ugari ostean lortu zuten eskailera airean ateratzea.

Arkhiru Arkitektoak, arkitektura eta hirigintza enpresa elgoibartarrak, diseinatu eta idatzitako proiektua gauzatzen dihardute Artekalen, eta eskailera mekanikoak ordezkatzeko igogailu publikoa eraikitzea izango da lan nagusia. Igogailua 2025eko urtarrilerako martxan egotea aurreikusten du Udalak. Arduradunek azaldu dutenez, igogailurako proposatutako diseinua integrazioan eta funtzionaltasunean oinarritzen da, eta asmoa da espazio hori argi-arrakala bihurtzea, hormigoia eta beirazko pieza handiak erabiliz igogailua eraikitzeko. Gainera, elementu berdeekin osatuko dute igogailuaren aurrealdean sortuko duten Artekale plaza.



### Altzolako tren geltokiaren aldeko kalejira egin dute



Altzolako San Joan jaien barruan aldarrikapenerako eta protestarako tartea ere hartu dute auzotarrek, eta zapatuan, tren geltokiaren aldeko kalejira egin zuten, Altzolan Tren Geltokia Bai plataformak eta Altzola auzo elkarteak antolatuta, 634 errepideraino irtenda. Eusko Trenbidea Sareak aurkeztutako proiektuan Altzolako tren geltokia kentzea aurreikusita dago, eta horren kontrako borrokan dihardute Altzolako bizilagunek.

### Regina Isasti eta Mertxe Morales izan dira Altzolako jaietako saskien saridunak



Altzolako jaien barruan erriak saldu zituzten eta bi otarre zozkatu zituzten erri-fa erosleentzako. Mertxe Morales eta Regina Isasti izan dira saridunak. Lehen otarreak bi lagunentzako bazkaria Karakate jatetxean, Surya belardendean 30 minutuko tratamendua, Galletiako produktu sorta eta bi ardo botila zituen. Bigarren otarreak berriz, Alzola Berazetako produktu sorta, Eizagirre okindegiko pasta kaxa, Galletiako produktuak, Surya belardendean 30 minutuko tratamendua eta bi ardo botila.

## King Kong zubiko obraren bigarren fasea martxan da, eta hamalau hilabete iraungo ditu

**B**este fase baten sartu dira King Kong zubia berritzeko lanak, azken hamar hilabetean egin dituzten lehen faseko lanak amaitu eta gero. Injelan SLk diseinatu eta idatzitako proiektuaren lehen fasea osorik gauzatu dutela jakitera eman du Elgoibarko Udalak, eta dagoeneko hasi dituzte bigarren faseko lanak. Lehen faserako 991.840,96 euroko inbertsioa egin dute, BEZ barne. Astelehenean zabaldu zuten igogailura joateko pasabidea eta igogailua bera ere matxan dago.

Ekin berri duten bigarren fasean Deba ibaiaren gaineko zubia birmoldatu eta pasabide berria Urazandi auzoarekin lotuko dute. N-634 errepidearen gaineko egungo pasabidea eraistea ere aurreikusten dute. Lan horiek Construcciones Artzamendi SA enpresak egingo ditu. Aurrekontua 1.004.374,74 eurokoa izango da, BEZ barne, eta gauzatzeko epea 14 hilabetekoa izango da.



Elgoibarko Udalak eskerrak eman dizkie inplikaturako pertsona guztiei emandako laguntzagatik eta herritarrei ere bai obrak gauzaten ari diren bitartean agertu duten ulermenagatik. Udal arduradunek agindu dute unean-unean emango dutela obren garapenak eragiten dituen bide-mozketa eta bestelako eragozpenen berri.

### Odol ateratzea egingo dute Mendaron uztailaren 5ean

Gaur zortzi egingo dituzte odol ateratzeak Mendaron, 16:30etik aurrera, Ikastolan. Arduradunek aurrez txanda hartzeko eskatu dute, eta horretarako modu berria dagoela zehaztu dute. Nahi duenak telefonoz egin dezake orain arte moduan, 634

073 498 zenbakira deituta edo bestela Internetez, Gipuzkoako Odol Emaleen elkarteak martxan jarri duen *Gotatanta.eus* plataformaren bidez. Elkartetik herritarrei dei egin diete odola ematera, udan odol erreserbak baju egoten direlako.

### 250 ikaslek hartu dute parte 'Gu ere bertsoan' egitasmoan



Elgoibar Ikastolako eta Herri Eskolako LH4 eta LH5eko 250 bat ikaslek hartu dute parte aurten *Gu ere bertsoan* egitasmoan. Gipuzkoako Bertsozale Elkartearekin lankidetzan antolatzen dute egitasmoa, eta Eneko Beretxinaga bertsolariak gidatzen ditu saioak. Egitasmoaren helburuak hizkuntza, kultura, musika eta trebetasun pertsonal nahiz sozialak lantzea da. Ikastetxeetan egin zizutzen ikasturte amaierako jaialdiak eta LH5eko saioa bideoan jaso dute. Ikastetxeen webguneetan dago ikusgai.



## Uztailaren 11tik 13ra egingo dute aurten Mendaron garagardo azoka solidarioa



**B**estela ere uztailean jai-egun asko pilatuko direla-eta, egun bat gutxiago izango du aurten Mendaroko garagardo azokak, antolatzaileek jakinarazi dutenez. Uztailaren 11tik (eguna) 13ra (zapatua) egingo dute, eta aurten batuko duten dirua Dislegi Debabarrena elkartearentzat izango da. Dislexia duten pertsonen eta haien familiei laguntzen diete Dislegin, dislexiaren eragin akademikoa eta soziala murrizteko tresnak eskainiz eta aholkuak emanez. Era berean, dislexia duten pertsonen ikasteko dituzten zailtasunak ezagutarazten, gizartea sentsibilizatzen eta kolektibo horrentzako aukera-berdintasuna lortzen egiten dute lan.

Urtero moduan, hitzaldi batekin hasiko dute garagardo azokaren baitako egitaraua. *Dislexiaren erronka Gipuzkoan* hitzaldia emango dute Dislegikoek San Agustin kulturgunean (18:00-20:00), eta dislexiari buruzko erakusketa ere jarriko dute ikusgai jubilatuen ondoko lokalean. Garagardo azokak irauten duen egunetan egongo da zabalik, 18:00etatik 20:00etara. Gau hortako afaria, *Dislexia bistaratuz* izenarekin iragarri dutena, berezia izango da. Barikua, Enpresen Eguna izendatu dute, eta urtero moduan, askotariko ekintzak eta DJ emanaldia ere izango dira, eta azokako azken eguna, zapatua, Herritarren Eguna izango da. Egitarau osoa gaur zortziko astekarian emango dugu, baina otorduetarako erreserbak egin nahi dituenak Uztargi tabernan egin ditzake, aurrez.

## Iñaki Arregi eta Nuria Guerola Mendaroko EAJko zinegotziek kargua utzi dute



Martitzenean egin zuten udalbatzaren osoko bilkuran utzi zituzten beren zinegotzi karguak Iñaki Arregi Uria eta Nuria Guerola Horrillo EAJko zinegotziek. Antolakuntza eta Lurralde batzordeetako kide eta EAJko taldearen bozeramailea izan da legegintzaldi honetan Iñaki Arregi, eta Herritartasun batzordeko kide Nuria Guerola. "Arreta eta erabateko dedikazioa eskatzen duten arrazoi pertsonalengatik" utzi dute kargua, beren beste ardurek zinegotzi gisa bete behar dituzten eginkizunak egoki betetzen jarraitzea eragozten dietela arrazoituta. Aipatu dute "pribilegioa" izan dela herritarren eta Udalaren alde lan egitea eta eskerrak eman dizkiete gainerako zinegotziei, Udaleko langileei eta herritarrei, eurengan jarritako konfiantzagatik.

### Mendaro ikastolako azken solairuan toldoak jarriko ditu Udalak

Pertsianak egon badauden arren, ikastetxeko atzeko aldera ematen duten bost gelak asko berotzen dira egun eguzkitsuetan, eta horregatik, leihoetan 6x3 metroko toldoak jarriko ditu Udalak. Erresistentzia handiko toldoak izango dira eta olana bakoitzak motor bat izango du, urrutiko aginte baten bidez errazago zabaldu eta ixteko. 7.283 euroko aurrekontua izango du obrak, BEZ barne. Horretarako, dagokion instalazio elektrikoa ere jarriko dute brigadakoek, baina instalazio hori aurrekontutik kanpoko dago. Toldoek mugimendu-sentsoreak izango dituzte, haize bortitza detektatzen dutenean, ixteko.

## 337 milioi euroko fakturazio historikoa izan du Danobatgroupek 2023an

**D**anobatgroup Industria taldeak 2023ko jasangarritasun memoria argitaratu du. Taldearen hirugarren jasangarritasun memoria izan da, eta bertan jaso dutenez, 337 milioi euroko fakturazio historikoa izan du taldeak 2023an. Fakturazioaren %90 baino gehiago nazioarteko merkatuetatik lortu dute, eta %9tik gorako inbertsioa I+G+Bn (28 milioi euro baino gehiago). Oharrean diotenez, inbertsio horretan ez du alde batera utzi bere inguru hurbila ere, eta beraien plan estrategikoan jasota duten moduan, bere lurraldean aberastasuna eta enplegua sortu ditu.

Zentzu horretan, kooperatiben egoitza nagusietako instalazioen modernizazioa, egokitzapena eta handitzea ahalbidetu dituzte. Soraluceren muntaketa planta berria inauguratu zuten 2023an, eta plantak LEED Ziurtagiria (Energia eta Ingurumen Diseinuko Lidergoa) lortu du. Danobatek ere 2024an inauguratutako planta berri bat dauka, eta Goimek ere 50 milioi eurotik gorako inbertsio planean sartuta dago.



Nazioartean, 2023an Shangain bikaintasun zentro berri bat ireki izana nabarmendu dute. Txina, Estatu Batuak, Alemania, Italia eta Mexiko dira gaur egun taldea kokatuta dagoen merkatu nagusiak.

Arlo sozialean, bestalde, Danobatgroupek 2021-2024 aldirako azken Plan Estrategikoan kalitatezko enplegua sortzeko jarritako helburuak bete zituen, eta urtetik urtera trebakuntza handiko gero eta profesional gehiago ditu, jada 1.462 laguneko plantilla baitu mundu osoan.

### LGTBIK+ kolektiboaren aldeko elkarretaratzea gaur, Maalan

Elgoibarko LGTBK+ kolektiboak elkarretaratzera deitu du gaurko. Harrotasunaren Eguna da gaur, eta kolektibo horren aldeko

aldarria eramango dute kalera. Maalako parkean izango da, 20:30ean, eta segidan musika izango da, zuzenean.

### Mendaroko ballet eskolakoek ere amaitu dute ikasturtea

Balleteko ikasle gaztetxoek eta helduek, denek, parte hartu zuten ekainaren 12an egin zuten erakustaldian. Guztira, 11 koreografia ezberdin egin zituzten, eta ikasleek eskerrak eman zizkieten irakasle duten Rosa Marini, ikasturtean zehar egindako lanagatik. Era berean, herritarrak animatu dituzte datorren ikasturterako izena emateko. Interesatuak telefono zenbaki honetara deitu behar dute: 667 519 153.







# ERRONKA, JAI BIHURTUA

✍️ Ainara Argoitia  
📷 Asier Orbea / Josu Atxa

Marka guztiak ondu ditu La Roita erronkak. Hiru edizioetako txapeldunak lehiatu dira aurten, eta hirurek izan dute loriarako beren tarteak: igerian, Ion Fernandez izan zen nagusi, baina bizkletara igota Ioritz Leiaristik atzean laga zituen aurkariak eta aurrena iritsi zen Kalbarioko gainera. Mendarora arte eutsi zion tropelburu izateari Leiaristik, baina Ormaiztegiako txakurrarena egin zion han mendaroarrak. Nolanahi ere, atzetik aurrera eginda eta horrek dakarren buru nekerik handiena hartuta, Iker Odriak irabazi zuen apustua. Marka ezarri zuen, gainera, Odriak: 01:20:15. Baina inork saria merezi izatekotan, La Roita kuadrillakoak dira, berriro ere parerik gabeko jai antolatzeagatik. Argazkiak eta bideoa: [barren.eus](http://barren.eus)













## AITOR NOVA

Musika Eskolako saxofoi irakaslea eta  
zuzendari pedagogikoa

 Ainhoa Andonegi

'Agur, Aitor. Bilbo aldera zoaz, hemen uzten gaituzu. Jakin ezazu, zuretzat lekutxo bat, beti izango duzu', abestuz agurtu zuten Aitor Nova (Elgoibar, 1986) Inazio Bereziartua musika eskolako abesbatzen jaialdian. Izan ere, datorren ikasturtean ez da musika eskolan egongo. Inazio Bereziartua musika eskolako saxofoi irakasle eta zuzendari pedagogikoa izan da azken urteotan, eta datorren urtean Bilbo aldera eramango du bere musika, Bilboko Udal Musika Bandara, hain zuzen ere. Arrastoa laga du, eta faltan botako dute bere ikasle, lankide eta baita herriko eragileek ere, herrigintzan ere oso aktibo jardun du-eta. Jagoba Arrasateren hitzak erabili zituen agurrean, eta esan zuen ez dagoela triste badoalako, baizik eta pozik, Inazio Bereziartua musika eskolako parte izan delako.

*“Berriz  
jaioko banintz,  
musikaria izatea  
aukeratuko nuke”*

### **Nola hasi zinen musikagintzan?**

Garai hartako umeak hasten ziren moduan hasi nintzen ni ere musika ikasten. Musika eta koroa egin nituen, euskaldantzan ere ibili nintzen, futbolagatik laga nuen arte, eta instrumentua jotzen urtebete beranduago hasi nintzen. Ez dakit zein izan zen arrazoia, baina gogoan daukat instrumentua aukeratu behar nuenean ez nuela aukeratu, eta hurrengo urtean hasi nintzela saxofoia jotzen.

**Elgoibarko Musika Eskolatik Donostiako kontserbatoriorako bidea hartu zenuen. Erabaki garrantzitsua zure bizitzan.**

Bai. Musika Eskolara iritsi zen informazioa

esanez Donostian Batxilergo Musikala jarriko zutela martxan. Nik argi izan dut beti musikaria izan nahi nuela, eta interesgarria iruditu zitzaidan. Eskolan ondo moldatzen nintzen, eta esaten zidaten egin ahalko nuela ingeniartzaren bat, baina nik ez nuen nahi, nik musikaria izan nahi nuen. Gutxietsita zegoen musikari izate hori, baina ez zitzaidan inporta. Kontserbatoriorako sarrera frogak gairatu nituen, eta Donostiarako bidea hartu nuen. Proba pilotu moduan jarri zuten martxan Batxilergo Musikala, eta gurea izan zen lehenengo promozioa. Groseko institutuko irakasleak etortzen ziren kontserbatoriora eta han ematen zizkiguten klaseak. Batxilergoko ikasgai tronkalak goizez ematen zizkiguten, eta arratsaldean kontserbatorioko musika klaseak jasotzen genituen. Niretzako oso egokia izan zen ikasketa guztiak eraikin berean egitea. Lagun oso onak egin nituen han eta oroitzen oso onak ditut. Konturatu nintzen ni bezalako jende gehiago bazegoela, eta hori lasaitasun moduko bat izan zen. Elgoibarren bakarra izan nintzen musikariko bidea hartzen, eta nire zaletasun berbera zeukan jendea ezagutzea polita izan zen. Bizitzako lehen erabaki garrantzitsua izan zen Batxilergo Musikala egitera joatea, eta, eskerrak eman behar dizkiet gurasoei, erabaki horretan babesa eman zidatelako. Beti izan ditut alboan eta behar izan dudan toki guztietara eraman naute. Oso eskertuta nago. Amarentzat gogorra izan zen nire lagun guztiak Mekara joaten ikustea eta ni Donostiara, baina nik argi daukat nire lekua han zegoela.

### **Instrumentua aukeratzea ez da erraza izaten. Zuk saxofoia aukeratu zenuen. Zergatik?**

Gaur egun instrumentu guztiak probatzen dituzte umeek, baina lehen ez zen horrela izaten. Nirea kasualitatea izan zen. Lehengusinare senarrak bandan jotzen du, eta egun baten eraman ninduen instrumentuak ikustera. Putz egiteko instrumentu batzuk laga zizkidan, eta saxoari soinua atera nion. 'Hauxe da nirea', pentsatu nuen. 8 urterekin hasi nintzen ikasten, eta 16 urterekin sartu nintzen Donostiako Kontserbatorioan. Dena dela, Elgoibarko musika eskolan ere jarraitu nuen. Gustura nenbilen hemengo irakaslearekin eta ez nuen utzi nahi. Musikenen sartu nintzen arte jarraitu nuen Elgoibarko musika eskolan. Goi mailako saxofoi ikasketak egin nituen gero Musikenen lau urtez,

*"Eskerrak eman behar dizkiet gurasoei babesa eman didatelako. Beti izan ditut alboan, eta behar izan dudan toki guztietara eraman izan naute"*

eta handik Frantziarako bidea hartu nuen. Montpellierreko Kontserbatorio Erregionalean hartu ninduten, bi urteko ikasketak egiteko, baina ez nituen bukatu. Bilboko musika bandatik deitzen zidaten tarteka emanaldietan parte hartzeko, eta nik nahi nuen lan munduan muturra sartzen hasi, mundu hau ez delako erraza. Musikaren sektorea oso lehiakorra da. Ikasi ahal izateko bakarrik, sarrera frogak egin behar izaten dira eskola guztietan eta oso plaza gutxi egoten dira. Ni Musikenen sartu nintzen urtean bi plaza bakarrik zeuden, eta oso jende ona aurkezten da. Lanerako ere ez da erraza, beraz, garrantzitsua iruditzen zitzaidan Bilbotik deitzen zidatenean baietz esatea. Azkenenean laga egin behar izan nuen Montpellierreko eskola. Taldekako ikasgaiak ere bagenituen, eta ni klasera ez joateak beste ikasleei ere kalte egiten zien, eta erabaki nuen horrela ezin nuela segi. Handik gutxira jubilatuta egin zen Elgoibarko musika eskolan nire irakasle izandakoa, eta niri eskaini zidaten haren lekua. 25 bat urte nituen. Migel Goiburu izan nuen irakasle, hernaniarra. Askok zor diot berari. Oso ondo konektatu genuen, eta gaur egun ere, badaukagu harremana.

### **Elgoibarko Udal Musika Bandako eta Mauxitxa txarangako kidea ere izan zara urte askoan. Ez dizut bietako bat aukeratzeko eskatuko...**

Desberdinak dira biak, baina niri biak gustatzen zaizkit. Donostiako Kontserbatorioan hasi nintzenean sartu nintzen Udal Musika Bandan, eta oso gustura nabil. Azken batean, musika gustatzen zait eta denean gozatzen dut. Bandarekin plazan jotzea hunkigarria da, plaza bete jende ikustea, denak kantuan... baina Herriko Antzokiko kontzertuetan ere asko gozatzen dut. Publikoa isilik egoten da, eta bestelako atmosfera bat sortzen da. Musika banda oso potentia dauka Elgoibarrek. Denok elgoibartarrak gara, eta emanaldiak prestatzeko lan handia egiten dugu. Iruditzen zait asmatu dugula bandari ukitu



berritzaile bat ematen, eta garai bateko zartzueta edota pasodobleez gain, estilo asko jorratzen ditugu gaur egun. Jo dezakegu musika klasikoa, modernoa, rock edo gospel taldeekin ere jo izan dugu edota Serafin Zubirirekin. Musikari onak daude bandan, langileak, giro oso ona daukagu eta hori ikusleei transmititzen diegu. Eta txaranga beste mundu bat da. Txarangan sartu nintzenean ni nintzen gazteena, eta niretzako sekulako eskola izan zen Mauxitxa, bai musikarako eta baita parrandarako ere.

**Mauxitxarentzat Txiki Eguna berezia da. Nola nahiago duzu Txiki Eguna, txaranga barruan ala kanpoan?**

Barruan, dudarik gabe. Orain dela bi urte izan zen Txiki Eguna kanpotik bizi izan nuen lehenengoa, eta ez dauka zerikusirik. Kuadrillakoekin ere gustura ibili nintzen, baina egun hori txaranga barruan itzela da. Nik gainera sanbartolomeak beti bizi izan ditut txarangari lotuta. Parrandan irtetzen hasi nintzenerako txaranga kide nintzen, eta nire betiko kuadrilla eduki arren, sanbartolomeetan txarangaok ibiltzen ginen parrandan.

**Saxofoiari lotuta bizi zara, baina dultzaina ere jotzen duzu eta Elgoibarko dultzaineroen taldeko kidea zara. Txomin Mujikak esan zuen zurekin loteriako sari nagusia tokatu zitzaizela.**

Umetatik gustatu izan zait dultzaina. Erraldioak irteten zirenean dultzaineroen ondoan joaten nintzen beti, eta soinu hori barruraino

sartzen zitzaidan. Hala ere, ez nuen ikusten niretzako instrumentu bezala, eta ez nion kolpe egin, Euskadiko Gazte Orkestrara iritsi nintzen arte. Uda bat egin nuen Gazte Orkestran eta fagota jotzen zuen mutilak, dultzaina ere jotzen zuen. Iruñeko dultzaineroetako bat zen, eta egun batean dultzainak ekarri zituen. Taldetxo bat bildu ginen berarekin, eta han hasi ginen dultzaina jotzen ikasten. Musikenen nenbilen ordurako, eta hurrengo urtean bera ere sartu zen. Hilean behin geratzen ginen eta dultzaina eskolatik ematen zizkidan. Hasieran nire kabuz jotzen ibiltzen nintzen, parrandetan eta ekitaldiren batean, baina Victor Zubiaurre gaixotu zenean, ordeko bila hasi ziren. Txomin Mujikak bere etxera gonbidatu ninduen, eta horrela hasi ginen elkarrekin jotzen.

**Musikari lotuta bizi zara. Zer da zuretzako musika?**

Dena, nire bizimodua. Musika da nire bizitza eta ez dut ulertzen bizitza musikarik gabe. Ez dakit musikarik gabe bizitzen, eta badauket sortzeko beharra. Ikusle moduan inbidia pasatzen dut kontzertuetan; oholtzara igo eta jotzen hasteko gogoia sartzen zait. Berriz jaioko banintz ere, musikari izatea aukeratuko nuke, zalantzarik gabe. Lanbide gogorra da, sakrifikatua, lehiakorra, baina ez naiz damutzen hartu nuen bidez.

**Bazoaz Elgoibarko Musika Eskolatik, eta agur jaialdian bertso bat kantatu zizuten ikasle eta irakasleek. Faltan botako zaituztela esan zizuten**



## **behin eta berriro. Arrastoa lagata zoaz Bilbo aldera. Erabakia hartu duzu.**

Bai, etapa berri bat probatuko dut. Dena dela, Elgoibarko Musika Eskola oso esku onetan geratzen da. Sekulako lantaldea dago, eta ni bat gehiago izan naiz talde horretan; inoiz ez dut nire burua ikusi zuzendari edo nagusi moduan. Zuzendari pedagogikoa izanik beste ardura batzuk hartu behar izan ditut, baina beti saiatu naiz taldea batzen, giro ona sortzen, lantaldea egiten, eta hori guztia ikasleek igarri egiten dute. Musika Eskolan geratzen da Imanol (Garaizabal), eta hori bai dela musika eskolako motorra. Dudarik gabe bera izan da eduki ahal izango nukeen lankiderik onena. Musika Eskolako lokomotorea da. Zuzendaria, administraria, atezaina, konpontzailea, psikologoa... Dena da Imanol. Eta gainerako irakasle guztiak ere, ikaragarriak dira. Nire ordezkoa Leire Martin izango da, Larrabetzuko neska gazte bat, oso jatorra, eta seguru nago lan ona egingo duela. Zuzendari pedagogiko moduan Beñat Isasti geratuko da, zarauztarra eta oso balekoa. Musika eskolaren norabidea zaintzea da zuzendari pedagogikoaren ardura nagusia.

## **Musika Eskolak herriko beste eragile askorekin elkarlanean dihardu, eta horietako ekinga asko zuzen gidatu dituzu. Herrigintzan oso aktiboa zara, beti elkarlanerako prest. Nola ulertzen duzu herrigintza?**

Asko kostatzen zait ezetz esatea, denari *bai* esatekoa naiz, eta hori askotan kontra etortzen zait. Gogoratzen naiz Montpellierren nengoela etorri nintzela Elgoibarrera oporretan, eta denekin kunplitu nahi izaten nuela: Taupadan ere banenbilen orduan, txaranga, senideak, lagunak... Azkenean ez nuen atsedetik hartzen. Neurria hartu behar zaio guztiari. Baina herrigintza garrantzitsua dela iruditzen zait, eta alor horretan Elgoibarko Izarrari asko zor diot. Atxutxiamaikan hasi nintzen hezitzaile moduan, eta han ikasi nuen zein

garrantzitsua den herriarentzat lan egitea. Azkenean, lan egiten duzunean, emaitza bueltan etortzen da eta konturatu nintzen zelako gauza politak egin daitezkeen elkarlanean. Nire bizitzan gaur egun aplikatzen ditudan gauza asko Atxutxiamaikan ikasi nituen, eta ez dakizu zenbat pozten naizen nire ikasleek esaten didatenean udan Atxutxiamaikan lan egingo dutela. Bizitzarako oso eskola ona da Atxutxiamaiaka.

## **Bilbon etapa berria hasiko duzu, baina zertan zehazki?**

Bilboko Udal Musika Bandara noa. Aspalditik egin izan ditut kolaborazioak beraiekin, eta lan politso nengoen. Ordezko bat behar izan dutenean deitu izan didate, baina egonkortasun askorik gabe ibili izan naiz. Oraindik ere ez dut plaza finkorik, baina epe ertain baterako lana izango dut, eta probatzera noa. Horrez gain, interprete moduan lan egiteko gogoia ere badaukat, irtetzen zaizkidan proiektuetan. Alor hori indartu nahi dut. Momentuz banoa Elgoibartik, baina ez naiz desagertuko. Orain guraso moduan jasan beharko naute musika eskolan!

## **Musika Eskolak 40 urte bete ditu. Zer da Inazio Bereziartua musika eskola Elgoibarrentzat?**

Musikarien harrobia da. Elgoibar, musikari dagokionez, oso herri aberatsa da, eta horren arrazoietako bat musika eskola da. Banda daukagu, txaranga, eta orain EME (Elgoibarko Musikarien Elkarte) barruan musika talde pila bat, eta kalitatezkoak. Musika Eskola barruan badaukagu helburu bezala jarrita musika talde horien bermea izatea, biziraun dezaten. Eta ni neu ere ez nintzateke izango gaur naizena musika eskolarik gabe. Sekulako lana egin du musika eskolak 40 urtean, eta belaunaldi asko pasatu dira handik. Zorionez, osasuntsu dago eta etorkizun ona ikusten diot.



*"Ikusle moduan inbidia pasatzen dut kontzertuetan; oholtzara igo eta jotzen hasteko gogoia sartzen zait"*



## HASI DIRA UDALEKUAK

✍ Ainhoa Andonegi 🗣 Asier Orbea / Ainara Argoitia

Astlehenean hasi zituzten udalekuak Elgoibarren eta Mendaron, eta uztailaren 19ra bitartean jardungo dute umeez aisia hezitzailean. Mendaron, HH3tik LH6ra arteko 55 umek hartuko dute parte Udalak antolatutako udalekuetan, lehenengo txandan. Elgoibarren berriz, HH2tik LH6ra arteko umeez hartuko dute parte Atxutxiamaikaren eta Ludotekaren aldian, eta guztira 294 umek eman dute izena. Jolasak, egunpasak eta egonaldiak

izango dituzte, besteak beste. 40 hezitzaile eta 13 praktiketako ikasle ibiliko dira guztien arduraren.

Kirol Patronatuak, bestalde, Kirol Kanpua antolatu du aurten ere, eta 216 umek eman dute izena, iaz baino hamabi gehiagok. Lau astez kirol jarduera desberdinak egiteko aukera izango dute, hala nola, eskalada, atletismoa, mendiko bizikleta, futbola, eskubaloia, herri-kirolak, mendi-jokoak, tenisa eta patinajea.









# ARGENTINAN BELARRIPREST, ELGOIBARREN AHOBIZI

**Elgoibartarra da Alex Garate, baina 25 urte daramatza Argentinan bizitzen. Doktorego tesia egitera joan zen, parajea gustatu eta han osatu zuen familia, eta orain, lanean hilabeteko baimena eskatuta, sorterrira itzuli da oporraldian, gurasoenera, Maria de los Angeles Visconti amaginarreba, Gabriela Aguirre bikotekidea eta seme Unairekin. Elgoibarko Izarraren bulegora egin zuten bisita baten ondotik batu ginen haiekin, San Joan aurretxoan, euskararekin duten harremanaz eta beste hainbat kontuz aritzeko.**

✍️ Ainara Argotia / 📍 Asier Orbea

**E**uri txikia ari du eta fresko egiten du gauden garairako. Baina Elgoibarren dena zaio "oso polita" Maria de los Angeles *Marita* Viscontiri. Argentinarra da, haren lehenengo zortzi abizenek jatorri italiarra duten arren. Alaba Gabriela Aguirre, suin Alex Garate eta biloba Unairekin iritsi berri da Unquillotik (Cordoba, Argentina) eta Elgoibarko Izarrako bulegoan ezagutu dugu elkar. Hilabete egingo dute hemen, eta udaldirako euskarazko eskaintzari buruzko informazio bila etorri dira laurak bulegora. Hemen egingo duten denboran, 7 urteko semea adinkideekin euskaraz harremantzeko bidea egin nahi dute Alexek eta Gabrielak, Atxutxiamaikan izena emanda. Jaio ezkerro, euskaraz egin dio beti aitak Unairi, eta orain, gero eta gehiago, amak ere bai, euskara ikasteko ahalegin betearen ari delako Gabriela azkeneko urteetan, Euskal Herritik milaka kilometrora. Unai berak dena ulertzen du euskaraz, baina kosta egiten zaio berba egitea. Belarriprest da, baina ahobizi(ago) izan dadin nahi dute gurasoek. Eta haiei euskaraz egiteko bidea emateko eta etxekoen artean galduta ez sentitzeko, gutxien-gutxienik belarriprest izan nahi luke amama Maritak. Hiru urte badira bera ere euskara ikasten hasi zela Cordoba hiriko Gerora euskal etxean, eta euskaraz hasi dugu elkarrizketa. "Gutxi eta guztiak hitzak nahasten ditut askotan", dio Maritak, esaldi batean oker erabili dituela konturatu orduko. Nahi genuke "gutxi" hori "guztiak" egingo balute, pentsatu dugu gure baitarako.

Alex da etxetik euskalduna den bakarria familia honetan, baina Gabrielari gaur senarra duena ezagutu aurretik piztu zitzaion euskarara eta euskal kulturara gerturatzeko gogoia. Ama Maritak kontatu du Bigarren Hezkuntzan ari zela hasi zitzaizela alaba Aguirre abizenaz galdezka, 17 bat urte zituela. "Euskal etxera joan nahi zuela esanez hasi zitzaidan eta neuk lagundu nion larunbat

batean, baina itxita topatu genuen. Ez bere aitak, eta ez bere aitona-amonek ez zuten sentitu sekula horren beharrik", azaldu du. "Baina, zergatik ez zuten sentitu beharrik? Erantzuna behar nuen nik. Jakin nahi nuen arbasoei buruz; jakin nahi nuen Euskal Herriko zein partetik migratutakoen ondorengoa nintzen; nor zen gure familian hemendik hara joandako lehenengoa, baina zoritxarrez, Argentinan ez dago hemen bezain erraza norbere zuhaitz genealogikoa osatzea. Gure abizena hain da komuna gainera, galduta dagoela Argentinako historian. Noizbait jarri gara ordenagailu aurrean eta lortu dugu, hiru minutuan, Alexen familian 1.600. urtera arteko informazioa eskuratzea. Han pentsaezina da, historiaren parte bat ezabatu egin dutelako, propio. Identitatearena arazo larria da Argentinan", gehitu du aldamenetik Gabrielak berak.

Erabaki sozio-politiko batek ezabatu ditu zenbait jatorritakoak Argentinan -eta munduan-. "Beti izan dira kategoriak, baita abizenen artean ere. Jatorri batzuk jasotzeko ahalegina beti egin izan da, eta beste batzuk, lotsaz-edo, ezkutatu egin dira. Octavio Pazek badu gai honi buruzko liburu zoragarri bat: *Laberinto de la soledad*". Hunkitu egin da Gabriela jatorriaz eta identitateaz ari dela; sentimendu asko dira barruan pilatuak dituenak. Amaren aldeko lehenengo zortzi abizenak italiarrak ditu [Maritak italiar herritartasuna ere badu], beraz, Gabrielak badu bere jatorriaren erdiaren berri, baina beste erdiaren inguruko historia da falta duena, aguirretarrena. "Gure aitak esaten du Saltakoa zuela birramonetako bat, hango kazike baten alaba. Saltakoeak, Argentina iparraldekoak, ez dute sekula Buenos Aires edo Cordobakoak besteko prestigiorik izan, eta parte hori ezkutatu egin izan da beti gure familian, baina gure aitak 80 urterekin ile beltz-beltza du gaur ere, Ameriketako indioen bereizgarritzat daukaguna".

Bere izate mestizo horren parte bat eraikitzeke gogo horri Alex ezagutu izana gehitu zitzaion gero, eta orduan eman zuen Gabrielak *Euskara munduan* programarako izena euskal etxean, bai eta urtean birritan Argentinan, Uruguain eta Txilen euskal girotze barnetegietan egingo zituzten astebeteko egonaldietarako ere. Gaur, Cordoba hiriko Gerora euskal etxeko kide da Gabriela. Euskara eta dantza eskolak, mintzapraktika saioak, euskal sukaldaritzan trebatzeko tailerrak eta abar luze bat antolatzen dituzte Geroran, eta hantxe ibili zen bost bat urtez euskara ikasten ere, harik eta Unai izan zuten arte. Semea bihurtu zen orduan lehentasuna, eta laga zion euskara eskoletara joateari, baina ez, ordea, euskara ikasteari. Izan ere, etxean, sekula baino euskara gehiago entzuten hasi zen kolpetik Gabriela, Alexek, modu natural batean, semeari euskara transmititzeko ardurua jarria ziolako bere buruari. "Eta nik, bost urtean euskara ikasten ibili ondoren, ez nizkion gauza asko ulertzen. Elgoibarko hizkeran hitz egiten zion Alexek Unairi, eta huraxe nahi nik, konturatuta nengoelako Euskal Herrira etortzen ginen aldietan ere ez niela Alexen gurasoei ezer ulertzen, 'bixar', 'martitzena', 'gustatzen jata' eta halakoekin hasten zirenean. Nik ez nuen liburuko euskara nahi, ez nuen euskara titulurik behar; nik euskara etxekoekin egiteko behar nuen, eta haien euskalkia ikasi nahi nuen".

Euskal Herrira sarriago etortzen ere hasi ziren guraso izan eta gero. "Sei aldiz etorri naiz hona", esan du Unaik erdi ahopean, amaren altzotik [COVIDaren pandemian izan ezik, urtero etorri dira udan, Unai jaio zenetik]. Elkarriketa jarraitzen ari da bera ere, eta eman diote hitza. Gaztelaniaz hasi da. Elgoibarri buruz dio itsasoa gertu izatea eta jolas parkeko tirolina gustatzen zaizkiola gehien. "Debako tirolina probatu nuen lehenengo eta gero jarri zuten hemen. Argentinan ia sekula ez dut tren geltoki bat ikusi, eta hemen asko daude. Elgoibarren lagun bat egin dut, eta Argentinako nire lagunei euskarazko hitz batzuk ere erakutsi dizkiet: kaixo, agur... haurreskolatik elkarrekin gaude eta eskolatik irten ondoren ere bai", bota du, eta gorde da amaren altzoan berriro. Amak jarraitu du. Gabrielak dio Euskal Herrira maizago etortze horrek are gehiago

**"Abizenen jatorri batzuk jasotzeko ahalegina beti egin izan da, eta beste batzuk, lotsaz-edo, ezkutatu egin dira. Octavio Pazez badu liburu zoragarri bat identitateaz: 'Laberinto de la soledad'"**

piztu diola euskalduntasuna; horrek eta baita euskaraz hasten denean inguruko euskaldunak zein eskertuak zaizkion ikusteak. "Gustatzen zait Euskadi Irratia entzutea, filmak euskaraz ikustea... gustatzen zait ulertzeko gai naizela sentitzea, eta gustatzen zait euskal etxean hori indartzeko egiten duten lana".

## **EUSKAL ETXEA**

Sustraietara itzuli, euskal nortasunari eutsi eta euskal komunitatea indartzeko sortu zituzten euskal etxeak diasporan, eta berebiziko lana egiten dutela iruditzen zaie elkarriketatuei. Han topatzen dute elkar euskal jatorriko askoren ondorengoek, hirugarren eta laugarren belaunaldiko "euskaldunek", bai eta euskal herritarrekin odoleko senidetzarik izan ezta ere, euskarak eta gure kulturak erakarritako beste zenbaitek. "Nekez topatuko duzu, hori bai, Euskal Herritik joan berririk. Ni neu ez naiz sekula euskal etxera lotu. Ez dut beharrik sentitu, ziurrenik ez dudalako behin ere nire aurrekoen bila ibili beharrik sentitu. Guk beti jakin dugu euskaldunak garela", zehaztu du Alexek. Adin ezberdinetakoak batzen dira euskal etxeetan, eta pertsona beste pentsakera bilduko diren arren, euskal etxe askotan Euskal Herriaz zabaltzen duten irudiari oso tradizionala irizten dio Gabrielak. "Koadroko Euskal Herria saltzen dute, idealizatua eta kontserbadorea, baserriarena, Sabino Aranarena, topikoz jositakoa. Argentina da Hego Ameriketako euskal etxe gehien dituen herrialdea, eta 1800. urteaz geroztik irudi hori zabalduta bereziki gehienetan. Baina zorionez, gure euskal etxean eta beste zenbaitetan ere bai, badago gazte mugimendu bat ere oso bizia dena. Euskal Herriko mugimendu sozial eta politikoekin kezka handiagoa dute, Gure Esku Dago bezalako mugimenduekin, eta Euskal Herri pluralago bat



erakusten dute. Konbinatzen dituzte euskal dantzak *chacarerekin*, adibidez, Argentinako dantza tradizionalekin". "Oso aberatsa" irizten diote gazte belaunaldiaren ikuskera irekiago horri Alexek eta Gabrielak: "Ederra da ikustea belaunaldi ezberdinetakoak nola sentitzen diren beren etxean bezala euskal etxean, ikuskera eta interes ezberdinak izanda ere. Iruditzen zait, hori bai, guri tokatzen zaigula markoa zabaltzea eta Argentinatik oroitu nahi dugun Euskal Herria pluralagoa dela erakustea", gehitu du argentinarrak.

Asmo horrekin antolatzen dituzte Geroran hizkuntza gutxituen inguruko jardunaldiak ere, non parte hartzen duten kitxua, nasa, nahuatl, aimara, maputxe, maia eta Ameriketako eta Europako beste komunitate minorizatueta jendeak ere. "Ez gaude begirada europeanizataile hutsa zabaltzeko. Nire leinukoen artean Aguirre abizenekoak daude, baina badaude kreoleak ere (*criollo*), eta iruditzen zait kultura nahasketa hori dela sarri Argentinako euskal etxe tradizional askotan ikusi nahi ez dutena". Ez da Gerora euskal etxeko kasua, bere esanetan.

Arraza eta klasea hitzak gehitu ditu elkarrizketara Gabrielak, erabaki sozial eta politikoen ondorioz egin diren isiltzeaz ari dela, eta aitzakia eman digu horrek gaur egungo politikaz ere aritzeko. Joan zen abenduaren 10ean Argentinako presidente kargua hartu zuen Javier Milei agintari ultraeskuindarrak galdetu diegu elkarrizketarekiko, eta aurpegia goibeldu zaie kolpera. Herritarren zati handi batek aukeratua izan dela erantzun dute eta ondorioz errespetatzea dagokiela, horixe delako demokrazia azken batean, baina demokraziaren antonimotzat dituzte Milei "lotsarik gabe" lau haizetara zabaltzen adierazpen polemiko eta probokatzaileak. "Hauteskunde aurrean,

**"Hauteskunde aurrean, Javier Mileiri botoa emango zioten askori entzun nien esanez, lasai egoteko, ez zuela esaten zuen guztia egiterik izango-eta, jendeak ez ziolako lagako"**

Mileiri botoa emango zioten askori entzun nien esanez, lasai egoteko, ez zuela esaten zuen guztia egiterik izango-eta, jendeak ez ziolako lagako. Uste zuten egongo zela arriskuak hartu eta kalera irtengo zenik kontra egitera, baina injustua da hori, kalera irten behar ginen horiek geu ginelako, inolaz ere botoa emango ez geniola genionak", esan du Gabrielak. Antzerkigintzan lizentziatua eta Artean diplomaturia da bera, unibertsitateko irakaslea, eta dio ikasturtea hasi zenetik eskola egunak baino greba egun gehiago izan dituztela, eta atzo bertan beste greba mugagabe bat hastea bozkatu zutela berak lan egiten duen unibertsitatean. "Arte instituzioak ixten ari dira eta COCINET Argentinako Ikerketa Zientifiko eta Teknikoen Kontseilu Nazionala ere arriskuan dago. Panorama oso txarra daukagu, iruditzen zaigulako ultraeskuinaren gorakada hau ez dela zoritxarrez Argentinara bakarrik mugatzen". Etsita sumatzen dira momentu askotan. "Ez dakigu zer beste egin Mileiri galga jartzeko", azpimarratu du Gabrielak. Aldi baterako, arnasa pixkat hartuko dute Euskal Herrian, aitortu dutelako gogorra egiten zaiela egunero irrati-telebista bidez presidentek esandako ahoberokeriak entzuteak.

Senide eta lagunak bisitatu, eta hilabete lasai bat igarotzeko asmotan etorri dira Euskal Herrira. "Ez diogu beste helbururik jarri bidaiari. Bo, bai, nik nahi nuke euskal giro batean semea soltatzea eta aurrerantzean euskara gehiago entzutea haren ahotik. Ez dakigu ondo irtengo den gure apustua, baina horretarako apuntatu dugu Atxutxiamaikaren udalekuetan; ikusiko dugu", aitortu du Alexek. Ez du ematen Unai aparteko zailtasunik izango duenik lagunarteko. Mutil bizia da, azkarra eta etorri onekoa; baina batez ere, umea da, eta gaur ere, elkarrizketa amaitu aurretik irten da bulegotik, parkera, lagun bila, amama Marita konplize duela. Euskaraz agurtu gaituzte biek.

"Hemen gaudenean neuk ere errazago egiten diot Gabrielari euskaraz", esan du Alexek, etxekoak agurtu ondoren. Gabrielak euskaraz dena ulertu arren, sarri gaztelaniaz dira bikoteko elkarrizketak, nahiz semeari aitak euskaraz egiten dion beti. "Hori bai, besteek ulertzerik nahi ez dugunean, euskaraz egiten diogu elkarri Argentinan", haizatu du sekretua Gabrielak.

# UDA ITXURA BAKO SANJOANAK

Sua eta ura, biak dira garrantzitsuak sanjoanetako errituetan, eta bietatik izan da aurten, aukeran bigarrenetik gehiegi, jai-egitaraua osatzen ibili diren eragileentzat. Eguraldiak baldintzatutako sanjoanak izan dira. Sallobenten egitekoa zuten Ekigain jaia bolatokira eraman behar izan zuten Elgoibarko Izarrakoeek barikuan, eta astebururako iragarrita zituzten hainbat ekintza bertan behera laga behar izan zituzten ezinbestean Altzolan. Mendaron, eguraldiari kontra egin eta plazako Akelarrea mantentzea erabaki zuen In Leike kultur elkarteak, baina desfilearen ibilbidea aldatuta. Astelehenean, hori bai, jaia bere osoan ospatu ahal izan zuten Altzolan. Argazki gehiago eta bideoak ikusteko: [barren.eus](http://barren.eus)

✍️ Ainara Argoitia 📷 BARREN / Ion Urbieta / Esti Gonzalez
















## 'Gomi eta Nola' performance-a bihar

**G**omi eta Nola performance-a egingo dute bihar Taupada antzerki taldeko kideek. Nola, baserritar jakintsua eta modernoa, Gomi abeltzainarekin ezkondu da, eta ezkontza ospakizunean, sentimendu kontrajarriekin topatuko da. Hitzik gabeko ikuskizuna izango da. 12:00etan izango da ezkontza zibila udaletxean, eta 13:00etan Kultur Kafean egingo dute ospakizun herrikoia. Ospakizunerako bederatzi mahai egondo dira gordeta, eta mahai bakoitzean bost lagun eseriko dira. Mokadutxoia eta edaria izango dute gonbidatu horiek, doan. Ezkontza ospakizunera arropa aproposa eramateko eskatu dute antolatzaileek, eta horiek lehenetsuna izango dute mahaietan esertzeko. Edurne Lasak zuzenduko du obra, eta aktore lanetan hauek arituko dira: Eduardo Ayesta, Ibai Leon, Dani Zelaia, Leire Apellaniz, Estibalitz



Begil, David Rodriguez, Oihane Gartzia, Nerea Cuende, Ruben Markina, Eire Markina eta Joxe Mari Larrañaga. Gonbidatuen figurazio lanetan, berriz, Loli Outumuro, Coro Fernandez, Gloria Santiago/Bego Moro, Maite Txurruka, Nagore Cid eta Edurne Lasa arituko dira.

### Larrain dantza ikastaroa antolatu dute

Sanbartolomeetan dantzatuko duten Larrain dantza prestatzeko ikastaroa antolatu dute. Uztailaren 3an eta 10ean izango dira saioak, 20:00etan, musika eskolan. 20 euroko prezioa

dauka ikastaroak, eta izena ematerakoan ordaindu beharko da. Lehenengo egunean bertan egin behar da izen-ematea. Antolatzaileek zapia eramateko eskatu dute.

### Biraka dantza eskolakoek amaitu dute ikasturtea



Hiru emanaldi egin zituzten joan zen astean Biraka dantza eskolako ikasleek ikasturtea amaitzeko. Adinka banatuta, talde bakoitzak bere dantza egin zuen, eta hiru jaialdi koloretsu egin zituzten Herriko Antzokian. 140 bat ikasle pasatu ziren oholtzatik. Argazki gehiago eta bideoa: [barren.eus](http://barren.eus)

### Tere Laspiur piano irakasleak erretiroa hartu du



Inazio Bereziartua musika eskolako piano irakaslea izan da Tere Laspiur eibartarra 1988. urtetik, eta aurtengo ikasturtea amaitzarekin erretiroa hartu du. Kontzertu berezia prestatu zuten agur ekitaldirako: egungo ikasleek eta ikasle ohiek jo zuten elkarrekin, eta une hunkigarriak bizi izan ziren ekitaldian.



## Gaurko Gararock Parkean jaialdia San Agustineran aldatu dute



**G**aur iluntzerako antolatu dute Gararock taldekoek Gararock parkean kontzertua, Udalaren eta Foru Aldundiaren laguntzarekin. Irailaren 21ean egingo duten musika jaialdi handiaren atarikoak da gaurkoa, eta Azpilgoetako Santa Kruzkuako parkean egitekoa zuten, baina eguraldi kontuengatik San Agustingo kulturgunera aldatuko zutela aurreratu zuten astelehenean antolatzaileek. Petti kantautore eta musikari beratarrak emango du kontzertua, Etxeko Uztak taldekoak lagun dituela: Joseba Irazoki (gitarra), Iñigo Telletxea (baxua) eta haren anaia Igor (bateria). 19:00etan izango da kontzertua, eta sarrera doan izango da. Irailerako materiala ere salgai dute dagoeneko Gararockekoek.

### **LGTBI+ kolektiboari buruzko 'Zarata' audiogida zabalduko dute Mendaron, bihar, hilak 29**

LGTBI+ kolektiboaren inguruan kontzientzia sortzeko asmoz sortutako proiektua da *Zarata*. Entzuteko ibilbide gidatu batean datza proiektua: parte-hartzaileek, kasko edo entzungailuekin hornituta, audio bat entzungo dute euskaraz edo gaztelaniaz queer kolektiboko hamar euskal artistaren ahotsekin. Artista bakoitzak LGTB+ kolektiboaren aniztasunari eta erronkei buruzko hausnarketara gonbidatzen duen istorio bat partekatuko dute. Jubilatuen ondoko lokalean jarriko dute, 16:00etatik 19:00etara.

### **Zehaztu dituzte santanetako danborradetarako entsegu egunak**



Uztailaren 25ean egingo dute nagusien danborrada Mendaron, eta hiru entsegu egun zehaztu ditu Udalak: uztailaren 1ean, 8an eta 15ean elkartuko dira entsegatzeko, 21:00etan, frontoian. Haurren danborrada, berriz, uztailaren 28an egingo dute. Arno Guraso Elkarteak antolatzen du urtero haurren danborrada eta entseguak uztailaren 8an, 15ean eta 22an izango direla zehaztu dute, 19:30ean, frontoian.

### **Uztailaren 1ean zabalduko dute santanetan egingo duten nagusien bazkarirako izena emateko epea**



Uztailaren 20an hasiko dituzte Mendaron santanak, eta uztailaren 21ean ospatuko dute nagusien eguna. Egun horretan, Aizpe gastronomia elkarteko zuzendaritza taldekoek bazkaria prestatzen diete aurten gutxienez 70 urte beteko dituzten mendarorrei (bikoteen kasuan, nahikoa da bietako batek baldintza hori betetzea), baina bazkarira joateko izena eman behar da aurrez. Udaletik jakinarazi dute uztailaren 1etik 14ra bitartean eman ahal izango dela izena, Roteta, Coviran edo Sonia dendetan edota Lagun Betikoak tabernan.

## Uztailaren 5ean hasiko da aire libreko zinema

**G**aur zortzi hasiko da aire libreko zinema Elgoibarren, eta aurten zortzi film emango dituzte uztailleko asteburuetan. Kalegoen Plazan izango dira filmak, 22:30ean.

- El método Williams (Uztailak 5)
- *Momiak* (Uztailak 6)
- *Los Mitchel contra las máquinas* (Uztailak 12)
- *Jurassic world: Dominion* (Uztailak 13)
- *Fast & furious* (Uztailak 19)
- *Mavka: basoaren zaindaria* (Uztailak 20)
- *Barbie* (Uztailak 26)
- *Elemental* (Uztailak 27)

### Gaurtik domekara bitartean ospatuko dituzte Idotorbeko jaiak

Bihar, ekainak 29, San Pedro Eguna izango da, eta horren harira jaiak ospatuko dituzte Idotorben. Gaur iluntzean hasiko dituzte festak, kanpai jotze eta txapilu jaurtitzearekin. Lagunarteko afaria egingo dute ondoren, eta mus txapelketa gero. Bihar zaindariaren eguna ospatuko dute, eta ez dira faltako urteroko prozesioa eta Haritz dantza taldearen emanaldia. Cross country moto txapelketa izango dute arratsaldean, eta iluntzean erromeria, Kitziki taldearekin. DJ saioa antolatu dute gauerako, eta goizaldera irrintzi txapelketa egingo dute. Biharko autobus zerbitzua egongo da herritik, doan. 20:30ena hasiko da autobus zerbitzua, Txarridunako biribilgunean.



Domekan, berriz, umeentzako ekintzak izango dira nagusi. Jolasak, Niala magoaren saioa, eta Rusoren animaliak izango dira, besteak beste. Egitarau zehatza agendan duzue ikusgai.

### Amaiera magikoa izan du 'Tertuliak' egitasmoaren ikasturteak

Niala magoaren ikuskizunarekin eman zioten amaiera *Tertuliak* egitasmoaren ikasturteari, ekainaren 20an. 60 bat lagun batu ziren Kultur Etxeko sotoan, eta Alain Zulaika mago elgoibartarrak aho zabalik laga zituen guztiak. Magia ikuskizuna amaitu zenean, *Tertuliak* programako zazpi talde-dinamizatzaileek erregalu bana eta jendearen txaloak jaso zituzten egiten duten lanaren ordainetan. Aurten 37 lagunek parte hartu dute egitasmoan, zazpi taldetan banatuta; 25 emakumezkoak izan dira eta hamabi gizonezkoak.

2001ean sortu zuten *Tertuliak* programa. Elgoibarko Izarra, Elgoibarko Udala, AEK euskaltegia eta Udal Euskaltegia dira programaren



eragileak, eta Gipuzkoako Foru Aldundiaren eta Eusko Jaurlaritzaren diru-laguntza jasotzen du.



## Inoiz baino emakumezko pilotu gehiago lehiatuko dira bihar San Miguel Rallysprintean

San Miguel Rallysprinta automobilismo proba jokatuko dute bihar Etxebarri eta Elgoibar arteko errepidean. 15:00etan irtengo da lehen autoa Etxebarritik eta Metalkua parean izango dute helmuga. 2003tik 2016ra bitartean egin zuten proba berreskuratzeaz gainera, hainbat mugarri ezarriko dituen aro berria hasiko dute antolatzaileek. Beharbada sarriegi erabiltzen da historikoa berba, kazetaritzan bereziki, baina San Miguel Rallysprintaren 16. edizioak historikoa izateko osagai guztiak ditu. Estreinakoz emakumeek bakarrik antolatu duten auto lasterketa izango dela da proba berezia izateko osagai nagusia, baina ez bakarra. Orain dela bi urte sortu zuten Emakumeak Automobilismoan elkarteko kideek Eme automobilismo taldea sortu behar izan dute automobilismo proba hau antolatu ahal izateko. Taldeko presidentea den Oihane Urangak eta presidenteordea eta auto-gidaria den Monika Muñozek eman zituzten zapatuko lasterketaren eta taldearen inguruko azalpenak, astelehen arratsaldean Belaustegi baserrian egin zuten aurkezpen ekitaldian (bideoa [barren.eus](#)-en). Elgoibar eta Etxebarri erdibidean dagoelako aukeratu zuten Belaustegi. Elgoibarko alkate Maialen Gurrutxagak eta Etxebarriko alkate Jesus Iriondok ere hartu zuten parte aurkezpenean, eta baita Euskadiko Automobilismo Federazioak lehendakari Angel Gurrutxagak ere.

Autoen munduan emakumezkoak bistartzeko helburuarekin elkartu ziren zaletasuna partekatzen duten hogeit hamar emakume, azken urteetan emakumeen parte-hartzea nabarmen handitzen ari zela ikusita. Emakumeak ikusgarriago egiteko zeregin horrekin bat egin zuten Gipuzkoako, Bizkaiko eta Euskadiko Automobilismo Federazioetako arduradunek, eta erronka bota zieten andrei. "Ikusgarritasunaren alde ari bazarete, zergatik ez zarete ausartzen lasterketa bat antolatzera, eta antolakuntza eremu desberdinetan emakumeok lan egitera?, esan ziguten federaziotik. Erronka



onartu genien, gure helburuak lortzeko modu egokia dela iruditu zitzaigulako, eta begira non gauden, rallysprinta jendaurrean aurkezten", esan zuen Urangak prentsaurrekoan. Horretarako, baina, lanean "sendo eta gogotsu" aritu dira azken hilabeteetan. Eta lanak eman ditu fruituak, errekorren edizioa izango baita Urangaren hitzetan.

72 lagunek eman dute izena rallysprintean parte hartzeko, eta horietatik 30 emakumezkoak izango dira, tartean bost gidari, inoizko gehien. "Proba bakoitzean bi edo hiru kopiloto emakumezko egotetik gaur egun probako 20-25 emakumezko izatera pasatu dira automobilismo probak, eta San Miguel Rallysprintean 30 emakume eman dute izena, parte-hartzaileen %20tik gora, eta horietako bost izango dira gidariak, sekula baino gehiago". Lasterketa aurreko emaitza horiek ikusita, "bidea egoki irekitzen ari garen ondorioa atera genezake", dio. "Automobilismoak bizirik dirau eskualde honetan, gizon zein emakumeen parte hartzeari esker. Izan ere, 40 dira eskualdeko parte hartzaileak, horietako 20 pilotuak (Markina-Xemein, Etxebarria, Aulestia, Eibar, Berriatua, Ondarroa eta Elgoibarkoak). Markina Xemeingo Mirari Arruti arituko da pilotu gisa, eta beste hogeit hamar kopiloto lanetan arituko dira, tartean zortzi emakumezko: Mireia Saizar, Eneritz eta Jone Urzuriaga ahizpak, Idaira Agirregomezkorta, Maite Lekuona, Maialen Arrieta, Ainhoa Usobiaga eta Andrea Lopez, azken biak elgoibartarrak".

## Emozioa eta parekotasun handia pala txapelketetako finaletan



**E**makumezkoen zein gizonezkoen pala txapelketetako finalak jokatu zituzten barikuan, Kalegoen plazako frontoian. Bi partidetan estua izan zen txapela buru gainean janzteko lehia. Emakumezkoen finalean indartsu hasi zuten finala Iratxe Astigarraga debarrak eta Amaia Aizpurua azkoitiarrak. 11 eta 4 aurreratu ziren markagailuan. Jone Azkoaga eta Karmele Martinez zarauztarrek osatutako bikoteak, baina, ez zuten amore eman eta garaipenean sinetsita, partida parekatzea lortu zuten. 21nako berdinketan finala galtzeko beldurra gailendu

zen eta bost minutu eta erdiko tantoa jokatu zuten lau palistek. Jone Azkoaga eta Karmele Martinezek lortu zuten azken tantoa eta eurak dira Emakumezkoen XI. Pala Txapelketako irabazleak. Gizonezkoen VII. Pala Txapelketako lau finalistak kantxaratu ziren gero, Ander Conde eta Endika Etxaniz elgoibartarrak batetik, eta Ander Eizagirre zarauztarrak eta Mikel Arrieta elgoibartarrak osatutako bikotea bestetik. Gizonezkoen finala ere parekotasun handikoa izan zen. Conde eta Etxaniz 2-7 galtzen hasi ziren arren, buelta eman zioten markagailuari eta garaipena eskuratu (22-17).

### Amaitu dute denboraldia tenis eskolakoek



Denboraldiari amaiera emateko ekitaldia egin zuten aurreko astean 40 + 15 Tenis eta Padel Elkarteak. 40 bat lagun dabilta tenisean elkartean, gaztetxoak gehienak; 6 urtetik 15 urtera bitartekoak, eta horiei diplomak eta garaikurrak banatu zizkieten Mintxetan. Iñigo Loiola zinegotziaren eskutik jaso zituzten diplomak. Mokadu baten bueltan amaitu zuten ekitaldia.



## Saskibaloia, plazara

Elgoibarko Saskibaloi Taldeak saskibaloia eta musika uztartuko dituen jaia antolatu du biharko. Batetik, 3x3 saskibaloia txapelketaren bigarren edizioa egingo dute Lekueder plazan dagoen saskibaloia kantuan, 10:00etatik aurrera. Adin guztietako lagunek har dezakete parte, hiru edo lau kideetako taldeak osatuta. Izena emateko 618 259 339 telefono zenbakira deitu behar da edo taldekoen Instagramen duten kontura (*elgoibarst*) idatzi. Bestetik, Maalako parkera ere eramango dute saskibaloia. Saski bat jarriko dute han eta jokoak eta lehiaketaren bat antolatzea da euren asmoa. "Elkarrekin barre batzuk egitea izango da saskiarekin egingo ditugun joko edo lehiaketen asmoa, ondo pasatzea", esan dute.



Eta, eguna borobiltzeko, kontzertua emango dute Ellie Jensen eta Dani taldeek, 19:00etatik aurrera, Maalako eszenatokian.

## Mendaroko etapa irabazi zuen Hector Alvarezek irabazi du Gipuzkoako Itzulia



Gipuzkoako Txirrindularitza Federazioak eta Mendaroko Txirrindulari Elkarteak elkarrekin antolatu zuten Mendaron hasi eta amaitu zen Gipuzkoako Gazteen Txirrindulari Itzuliaren 34. edizioko lehenengo etapa. 92 kilometroko ibilbidean lehiatu ziren, zapatuan, estatu osotik etorritako jubenil mailako txirrindularirik onenak. 180 bat laguneko tropelak Mendaron hasi, Bergararaino igo, Elgoibarko Arriaga auzora


jaitsi, atzera Bergararaino buelta egin, Sasiolatik Kalbario gainera igo eta handik Mendarora itzuli ziren berriro. 02:08:45eko denbora eginda, LUCT taldeko Hector Alvarez Martinez (Alacant, Espainia) izan zen helmugaratzen lehenengoa, barikuan Idiazabalgo prologoa irabazi zuen berbera, eta Itzuliko sailkapen nagusian gailendu dena. Astelehenean jokatu zuten laugarren eta azken etapa Legazpin.

## Paula eta Iker Calvo, Parisko Olinpiar Jokoetarako gutxienekoaren bila lehiatu direnen artean

**E**spainiako igerilari onenak batu ziren joan zen asteburuan Palmako Son Hugo igerilekuetan jokatu zituzten Espainiako txapelketan. Parisko Olinpiar Jokoetara joateko azkeneko aukera zen igerilariarentzat, baina gutxieneko denboraren azpitik egin behar zuten igerian horretarako.

Bi igerilari elgoibartarrek hartu zuten parte, Paula eta Iker Calvo Villalobos neba-arrebek, Eibar Igerixan taldea ordezkatzuz lehenak eta Getxo Igeriketa Bolue taldea bigarrenak. 14 urte besterik ez dituen Paulak 50, 100 eta 200 metroko probetan lehiatu zen. Bizkar estiloko 200 metroko proban moldatzen da hobekien, duela gutxi esaterako bere kategoriako Europako Txapelketan lehiatzeko gutxienekoa lortu zuen Gipuzkoa Open Sarian. Palman zazpigarren seriean egin zuen igerian distantzia horretan, eta bosgarren postuan sailkatu zen, 02:20.68ko denbora eginda. B mailako finalerako sailkatu zen eta txapeldunorde izan zen 02:17.72ko denborarekin (bere marka pertsonala). Parisera joateko gutxienekoa 02:10.39 zen. Egin zuen denborarekin Europako Txapelketa absolutua jokatzeko gutxienekotik oso gutxira gelditu zen, eta gainera, hamargarren postua eskuratu zuen maila absolutuan, Espainiako igerilariarik onenen artean.

Ikerrek ere emaitza bikainak eskuratu zituen. Bosgarren sailkatu zen bizkar estiloko 50 metroko proban, junior mailan, 26.91ko denborarekin. Bizkaiko errekorra ezarri zuen, baina ez bere kategoriakoa bakarrik; errekor absolutua da. Horrez gainera, Getxoko taldekideekin batera Bizkaiko errekor absolutua ondu zuen 4x100 estiloko proban, 03:56.47ko denbora eginda.




---

### Urteko balantzea egin du C.D. Elgoibarrek


Urteko batzarra egin zuen C.D. Elgoibarrek joan zen egunean, eta hiru arlotan banatu zuten denboraldiaren balantzea: kirola, ekonomia eta gizartea. Batzarrean bazkideei esandakoen laburpena egin du Txus Alzagaga presidentek BARRENENTZAKO. Alzagaren berbetan, talde gehienek erdietsi dituzte denboraldi aurrean jarritako helburuak, eta batzuek "soberan gainditu" ere bai, hainbat izan baitira igoera faseak jokatu dituzten taldeak. Klubak 31 talde ditu, tartean Futbol Eskolan diharduten 540 neska-mutilak eta horiekin 58 entrenatzaile ari dira lanean. Horrenbeste talderen entrenamenduak eta partidak kudeatzea gero eta nekezagoa dela eta Mintxetako instalazioak txiki gelditu zaizkiela esan du presidentek. Taldeez gainera, Realak eta Gipuzkoako zein Euskadiko selekzioen teknifikazio saioetan parte hartu duten C.D. Elgoibarko jokalariek zoriondu ditu. Balantze ekonomikoari dagokionez, bi

datu bakarrik jakinarazi ditu klubak. Batetik, denboraldia 49.000 euroko galerekin amaitu dutela. "Materialean inbertsio handia egin dugu. Haundi nesken taldearen aldagelak egokitu ditugu, gizonezkoen parean egon zitezen, eta kirol arropa guztia berritu dugu, eta hori izan da balantzea negatiboa izateko arrazoi nagusia". Alabaina, 48.000 euroko diru poltsa dauka klubak, eta horri esker inbertsioak egiten jarraitzeko aukera izango dutela dio Alzagak. "Hurrengo urterako kirol jantzietan gasturik aurreikusten ez dugunez, irabaziekin amaitzea espero dugu". Bidelagun izan dituzten babesle guztiei eskerrak eman dizkie Alzagak.

Hirugarren arloan, arlo sozialean, herriarengandik gertuago egoteko, Udalarekin lankidetzan hainbat ekimen sustatu dituztela azpimarratu du Alzagak, besteak beste, Harrera Plana, *Elgoibartik Mundura*, Gaitu programa, Korrika eta Elkartasun Eguna.



## Aho zapore gozoa laga die antolatzaileei estreinako Akuatloiak



Igeriketa taldeak antolatuta, Elgoibarko lehendabiziko akuatloia egin zuten zapatuan, eta 40 neska-mutilek hartu zuten parte. Igerilekuan igerian egin eta gero Olaizaga kiroldegi inguruan prestatu zuten zirkuituan korrika egin behar zuten parte-hartzaileek, benjaminek eta infantilek. Lehiaketa izan bazen ere, lehiakideen artean sortu zen giro ona eta gaztetxoek erakutsi zuten motibazioa nabarmendu dituzte antolatzaileek

lehiaren gainetik, eta ez dute sailkapenen berri ere eman. Lehen esperientzia honen balorazio "oso positiboa" egin dute Elgoibarko Igeriketa Taldekoek, eta esan dutenez, dagoeneko hasiak dira hurrengo edizioen antolakuntzan pentsatzen. "Familien eta boluntarioen parte-hartzea eskertu nahi dugu Igeriketa Taldetik, izan ere, hurrengo edizioak antolatzeko ilusioa pizteko ezinbestekoak dira". Argazkiak: [barren.eus](http://barren.eus)-en. 🐾 Joserra Cabrera

### Nahaste Borraste, gaur, herriko kaleetan

Kimetzek antolatuta, Nahaste Borraste proba herrikoia 38. edizioa jokatu dute gaur, ekainak 28, 19:00etatik aurrera. Ohi moduan, Kalegoen Plazatik hasiko da Nahaste Borraste proba, eta helmuga ere plazan izango da. Betiko formatua izango du probak, bizikletaz, zakua bizkarrean hartuta eta korrika egin beharko dute, aspaldiko urteetako ibilbide berbera. Izena eman nahi dutenek 17:00etatik 18:30era, Kalegoen plazan agertu beharko dute. Aurrez izena emandakoek egunean bertan jaso beharko dute dortsala plazan, 18:30ak baino lehenago.



**LANA****Eskaintza**

Bi ume ikastolatik jaso eta zaintzeko lagun bat behar dugu. Astelehenetik ostegunera, 16:15etik 17:30era izango litzateke, irailatik ekainera. Euskaraz aritzeko gaitasuna baloratuko da. **669 311 611**

LH1eko ume bati astean hiru-bost orduz eskolak euskaraz emateko pertsona behar dugu. Sallobentzen bizi gara, eta autoa izatea eskertuko genuke. **663 134 415**

**Eskaerak**

Adinekoak zaintzeko edo bulego, lantegi nahiz etxeak garbitzeko prest nago. Esperientzia handia. **674 535 912**

Adinekoak zaintzeko, garbiketa lanetarako edo sukaldari laguntzaile moduan aritzeko prest nago. **643 711 687**

Adinekoak zaintzeko prest nago, orduka nahiz etxeko langile moduan. Esperientzia handia daukat. Berehala hasteko prest. **641 756 213**

Adinekoak zaintzeko prest nago, etxean zein ospitalean. Etxeko langile moduan, orduka, gauzez nahiz asteburuetan. **632 229 972**

Lan bila nabil. Orduka edo jardun osora lan egiteko prest nago. **631 892 149**

Garzte euskalduna udan umeak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko prest. **688 651 030**

Adinekoak zaintzeko eta garbiketa lanak egiteko prest nago. Etxeko langile moduan edo orduka. **631 584 186**

Adinekoak zaintzeko prest nago, arratsaldez. Titulua daukat. **613 717 439**

Adinekoak zaintzeko prest nago, arratsaldez. Titulua daukat. **612 204 818**

Adinekoak zaintzeko prest nago arratsaldez, gauzez edo asteburuetan. **640 821 269**

Adinekoak zaintzeko prest nago arratsaldeetan eta asteburuetan. **631 729 476**

Adinekoak zaintzeko eta garbiketarako egiteko prest nago, orduka. Erizain laguntzailea naiz eta titulua soziosanitarioa daukat. **643 505 662**

Gizonezkoak zaintzeko prest nago. Esperientzia daukat. **647 554 386**

Adinekoak edo umeak zaintzeko prest, orduka. Garbiketa lanak ere egiten ditut. **643 505 827**

**GARAJEAK**

Marradun garajea alokatzen da Pista Beltzeko 49. zenbakian. **663 134 415**


**OSPAKIZUNAK**

1947an jaiotako bazkaria, zutailaren 13an, Sigma jatetxean. 13:00etan argazkia, Kalegoen plazan, eta ondoren luntxa, Viento Sur tabernan. 70 euro sartu, ekainaren 29rako kontu honetan: 3035 0007 24 0071063126

  <p><b>ROSA Mª PINTADO</b></p> <p><i>Etaldeen Administrazioako-Gratu ikasketen arduraduna Alcalá de Henaresko Unibertsitatean, eta Gipuzkoa, Bizkai eta Arabako, Errioxako eta Kantabriako ikastetxeetan. Zuzenbidean lizentziatua. Kolegiatu zenbakia: 749</i></p> <p><b>660 969 679</b> <b>rosapf@telefonica.net</b></p>	<p><b>Garaje plaza eta trastelekua dituen pisu bat erosi berri dut. Trastelekua eta garajea modu independentean sal ditzakedan edo etxebizitzarekin batera saldu behar dudan jakin nahi nuke.</b></p> <p>Jabetza horizontalean banatutako eraikin bati dagozkion garaje- edo trasteleku-plazak finka independente gisa edo pisu edo lokal baten mendeko eranskin gisa har daitezke Eratzeko Tituluan. Finka independente gisa definituta badaude, tituluan zehatz-mehatz deskribatu beharko dira, hurrenkera-zenbaki bat, mugak eta abar finkatuta. Kasu horretan, saltzeko izapideak eta eraikina osatzen duten beste higiezinak saltzeko beharrezkoak direnak ez datoz bat. Bigarren kasuan, garaje edo trastelekua eranskin gisa agertzen bada, edo elementu osagarri bat bada, higiezinarekin batera bakarrik eskualdatu ahal izango da, eta azken horretatik elementu banaezina da, juridikoki biak unitate bat baitira. Kasu horretan, salmenta konplexuagoa da, eta, gauzatu ahal izateko, finka independente gisa eratu beharko da. Beraz, banaketa horrekin, banaketa horizontalaren eskritura aldatzen da, eta horrek jabeen aho bateko babesa eskatuko du.</p> <p><b>Gomendioa: Jabetza-eskritura aztertu beharko duzu, eskuratutako propietateak zein egoeratan dauden egiaztatzeko, eta, horrela, propietate horien balizko salmenta kudeatu ahal izango du.</b></p> <p><b>AHOLKULARI KOLABORATZAILEA</b> San Bartolome, 2</p>
--	---





Argazkiak eguazten eguerdia (12:00ak) baino lehen ekarri behar dira Barreneko bulegora, barren@elgoibarkoizarra.eus e-postara edo  **688 655 658** bidalita.




Zorionak, **Libe!** Uztailaren 3an 8 urte beteko dituzu! Jarraitu beti bezain alai eta jator. Muxu potolo bat etxekoan, eta bereziki, Aimarren partez.



Zorionak, **Nora,** ekainaren 22an 8 urte egin zenituelako. Etxeko guztion partez, muxu handi bat.



10 urte handi, **Nora!** Zorionak eta muxu handi bat etxekoan partez.



Zorionak, **Kai,** igandean 7 urte beteko dituzulako. Muxu handi bat etxeko guztion partez.



Zorionak, **Malen,** asteazkenean 2 urte beteko dituzulako. Patxo handi bat familiakoan, eta bereziki, Eleneren partez. Asko maite zaitugu.



Zorionak, **Eneko,** asteartean 9 urte bete zenituelako. Familiako guztion partez.

Erretratu bakarrekogurra: 4,50€.  
Argazki bikoitza: 7€. Hirukoitza: 9€.  
Hiru lagunetik gorako taldeak: 15€.

ELGOIBARKO IZARRAKO  
BAZKIDEENTZAKO PREZIOAK  
Erretratu bakarrekogurra: 3,50€.  
Argazki bikoitza: 6€ Hirukoitza: 8€.  
Hiru lagunetik gorako taldeak: 12€.

Jarri ezazu zure publizitatea  
BARREN astekarian edo  
barren.eus webgunean

 **943 743 704**

 **688 769 657**

**barren.publi@elgoibarkoizarra.eus**

Aita Agirre Kulturgunea, 3, 3 ezk.  
20870 ELGOIBAR

**Galdetu  
prezioak  
eta gustura  
erantzungo  
dizugu.**

## EXPRESS ESKAINTZAK!

SMS4HTI00E BOSCH ONTZI-GARBIGAILUA

A T G **D**

**599 €**



- 13 zerbitzu
- 4 programa
- VarioSpeed sistema
- Altzairu eta Polinoxeko Kuba Mistoa
- Hatz marken aurkako altzairu herdoilgaitza

# MILARBIRE

Ubitarte, 11 - 943 741 487 - [bire@milar.es](mailto:bire@milar.es)

Dendako prezioak. Produktuak agortu arte.



## 28 BARIKUA

**19:00** Nahaste Borraste. Kimetz elkarteak antolatuta, Kalegoen plazan.

**19:00** Gararock: Petti eta Etxeko Uzta taldearen kontzertua, San Agustin Kulturgunean.

**20:30** Harrotasunaren eguneko elkarretaratzea, Maalako parkean. Segidan, musika saioa.

## 29 ZAPATUA

**10:30** 3x3 saskibaloitxapelketa. Elgoibarko saskibaloitaldeak antolatuta, Lekuederren.

**12:00** Antzerkia: 'Gomi eta Nola'. Kalegoen plazan zeremonia eta, segidan, ospakizuna, Kultur Kafean.

**15:00 - 20:00** Rallysprinta, Aiastian.

**16:00** Zarata erakusketa. LGTBIQ+ kolektiboari buruzko ikus-entzunezko erakusketa. Mendaron, Jubilatuen ondoko lokalean.

**19:00** Kontzertuak Maalan: Ellie Jensen eta Dani.

## 30 DOMEKA

**10:00** Bisita gidatua: Dolmenen ibilbidea. Gaztelaniaz izango da: Erreserba egiteko: 657 796 677 edo [info@begi-bistan.com](mailto:info@begi-bistan.com) helbidean.

### 2024ko botika ordutegiak:

09:00-13:00 / 16:00-20:00

GUARDIAK: Egunez: 09:00-22:00

Larunbatak: 09:00-14:00 (■)

### EKAINA

28 BARIKUA ■ Oruesagasti  
29 ZAPATUA ■ Oruesagasti / ■ Yudego  
30 DOMEKA ■ Oruesagasti

### UZTAILA

1 ASTELEHENA ■ Ibañez  
2 MARTITZENA Gariaonandia  
3 EGUAZTENA Arriola  
4 EGUENA Garitaonandia  
5 BARIKUA Yudego

### 2024 urte guztian, gaeuz:

Lekunberri Alberdi, Mikel Isasi, 31 (Eibar)  
943 204 230

■ Fernandez:  
Herriko  
Enparantza,4  
Garagartza  
(Mendaro)  
943 756 142

■ Ibañez:  
Rekalde, 1  
(Soraluze)  
943 751 638

■ Oruesagasti:  
Kalebarren, 9  
(Soraluze)  
943 751 384



## OHE-IZARETAN ESKAINTZA

**%50 poliesterra eta %50 kotoia duten ohe-izarak 18€tik aurrera  
(neurri guztiak: 80 zm-tik 2 m-ra)**

**%100 Kotoia duten ohe-izarak 25 €tik aurrera**

**Ez galdu aukera paregabe hau! Bisita gaitzazu!**

San Roke kalea, 20 - Elgoibar - 943 744 457 - 685 756 978 - [www.textillagunak.com](http://www.textillagunak.com)



## SAN PEDRO JAIAK IDOTORBEN

### 28 BARIKUA

**19:00** Jai hasierako txapliguak eta kanpai jotzea.

**20:30** Lagunarteko afaria, San Pedro elkartearen.

**22:30** Mus txapelketa.

### 29 ZAPATUA

**11:00** Prozesioa eta meza nagusia.

**12:00** Armueta harategiak eskainitako luntxa.

**12:30** Haritz dantza taldearen aureskua eta soka-dantza auzotarrekin.

**13:00** Lagunak pilota elkartekoek antolatutako pilota partida.

**14:00** Auzotarren bazkaria San Pedro jatetxean, soinujuleek girotuta.

**16:00** Cross country moto txapelketa.

**20:30** Cross country moto txapelketako sari banaketa, eta segidan, erromeria, Kitziki taldearekin.

**21:30** Lagunarteko afaria, San Pedro jatetxean.

**Ondoren**, Dj saioa.

**Ordu txikitan**, irrintzi txapelketa eta berakatz zopa jana, doan, San Pedro elkartearen eskutik.

### 30 DOMEKA

**12:00** Musika Eskolako trikitilarien emanaldia.

**Ondoren**, Maite Gourmet-ek eskainitako pintxo dastaketa.

**13:00** Bolo txapelketa.

**13:30** Niala magoa.

**16:30** Umeen jolasak.

**17:30** Rusoren animaliak.

**Ondoren**, errifaren zozketa.



## AZKEN ZAPATUKO FERIA

**09:00 - 14:00** Elgoibarko baserrietako produktuen eta Artalde artisauek taldekoen produktuen salmenta. Kalebarren plazan.

**11:00** Urajai elkartekoek txosna jarriko dute.

**12:00 - 14:00** Umeentzako tailerrak, Kalebarren plazan.

**Eguerditik aurrera**, ganadu erakusketa, Kalebarren plazan.



### Eta, Debabarrenean zer?

**Flysch igeri zeharkaldia, Mutrikutik Debara. Ekainak 29, igandea.**

Igerilariak 11:30ean irtengo dira Mutrikuko portutik eta Debako Santiago hondartzarainoko bidea egin beharko dute igerian.



## Oro ez da urre

Anjel Ugarteburu



Udarregi bertsolariak, euskara besterik ez zekien hark eta idazten ez zekienak, ba omen zuen ohitura berezi bat. Baserrian lanean ziharduela, bertsoak asmatu eta asmatu, denak gogoan hartzerik ez zuenez, etxeko ganbaran zeuzkan artaburu, patata eta abarrekin asmatu ei zuen bertsoak ez ahazteko sistema bat. Gero Usurbilgo idazkariak pasatzen zizkion alfabetora.

Hizkuntza batean edo bestean idaztea, premia edo beharraren kontua izan da historian zehar. Hala, Mesopotamian, Tigris eta Eufrates arteko ubitartean, lurra landu eta ekoizpenak zenbatu, salerosketak antolatu eta populazioaren elkar bizitza arautzeko beharrak ekarri zuen zeinu idatzien beharra. Berdin gero Egipton ere, Nilo ibaiaren ibarretan eta Moisesek judutarrei harrizko tauletan eskainitako arau-zerrenda zurruna.

Gure hizkuntzak, euskarak, historian izandako bilakaera ikusten eta aztertzen badugu, bistan da pauso handiak eman ditugula, batez ere XX. mendearen bigarren erditik hasita gaur arte. Eskerrak! Bestela galduak ginen gaur egun itsaso handi nahasia diren hizkuntzen artean. "Hil ala biziko kontua" zen euskara batuaren afera, Koldo Mitxelena berak Arantzazuko batzarrean 1968an aldarrikatu zuenez.

Hizkuntzek eta euskalkiek bizirik iraun zezaketen, bakoitza bere muga eta esparruetan, herri eta eskualde bakoitzaren mugak hurbil zeudenean, mendiek eta ibaiak mugatzen zituztenean. Ez zen ikusten hizkuntza zein hizkera batek babes beharrik zuenik. "Quasi etche batetic bertzera, diferent" hitzegiten zela diosku Leizarragak, *Testamentu Berria* (1571) euskaratzen hasi zenean.



Gaur egun arte iraun du herri batetik bestera hitz egiteko moduak duen diferentzia horrek, eta ez euskararen bakarrik. Gaurko mundua, ostera, mugarik gabeko itsaso bihurtu da eta ia pertsona bakoitzaren hautua da muga bakarra.

Badugu, zorionez, euskara baturako estandar bat, Karrantzatik Maulera eta Baionatik Tuterara eskolatu eta euskaraz ibiltzeko balio diguna. Indarrak metatuz geure burua babesteko ezinbesteko tresna. Historian inoiz baino alfabetatuago dago gaur euskalduna bere hizkuntzan.

Bernat Detxeparek *"Linguae Vasconum Primitiae"* (1545) argitaratu zuenean urrats handia eman zuen euskaldunon autoestimurako. "Beste herriek uste zuten euskaraz ezin genuela idatzi eta inprimatu, baina orain frogatu edo ikusi dute engainatuta bizi zirela". Horixe da Etxeparek mundu osoari igorri nahi zion mezua. Harrezkero, asko eta asko idatzi da euskaraz; lehenik horretarako aukera zuen elizaren dotrina eta irakaspenak zabaltzeko eta gero baita beste alor askotarako ere. Lizardik *Biotz-begietan* (1932) olerki bilduman idatzita utzi zuenez:

Baina nik, hizkuntza larrekoa,  
nahi haunat ere **noranahikoa**  
jakite-hegoek igoa  
soina zahar, berri gogoa  
azal horizta, muin betirakoa

Euskara idatzian aurrerapen handiak egin ditugu eta gaur egun historian inoiz baino gehiago idazten eta inprimatzen da gure hizkuntzan; zientzia, teknologia eta literaturaren arlo guztietan idatzi eta irakurri ere. Baina *oro ez da urre*. Erabiltzen ez den tresna uhartu egiten da. Idatzia zurrun eta jariorik gabe gera liteke ahozko jardun biziak edaten ematen ez badio. Biziraupen kontua da oraindik ere gurea.





## ***Maria Anunciacion Arrieta Arrizabalaga***

*"Maria Etxeberri"*

2024ko ekainaren 23an hil zen, 96 urte zituela.  
Sendiak bihotzez eskertzen ditu jasotako doluminak,  
bai eta hileta elizkizunetara agertu izana ere.

***Zu joatearekin, AMA,  
gure zati bat zurekin joan da.  
Gure gogoetan egongo zara,  
adiorik ez.***

Etxekoak




I. URTEURRENA

## ***Antonio Erkiaga Espilla***

2023 ekainaren 17an hil zen, 95 urte zituela. Haren oroimenez  
I. urteurreneko meza izango da, domekan, ekainaren 30ean,  
11:00etan, Elgoibarko Bartolome Deunaren eliz-parrokian.  
Joango zaretenoi, alde z aurretik eskerrak.

***Ez zaitugu inoiz ahaztuko,  
ez zaitugu inoiz galduko  
gure bihotz barrenean  
eramango zaitugu betiko.  
Zuzentasunaren eredu beti,  
eta umorearen laguna.***

Etxekoak



V. URTEURRENA


## ***Arrate Aranguren Urkidi***

*"Beraseta"*

2019ko uztailaren 2an hil zen, 72 urte zituela.

***Zurekin amets, zurekin negar,  
zurekin barre, zurekin musu.  
Gutako bakoitzean bizirik jarraitzen duzu.  
Gugan beti, maite zaitugu.***

Etxekoak





# luma

ile-apaindegia

by berta mtz.



Donostiako eta Eibarko izen handiko bi ile-apaindegitan 25 urtez lanean jardun ostean, ume-umetatik izan dudan ametsa beteko dut, Elgoibarren, nire herrian. 4 bat urte nituenetik garbi izan dut ile-apaintzaile izan nahi nuela eta noizbait neure ile-apaindegia izango nuela. Orain, hogeita bost urtez lankide eta lagun izan ditudanen ondoan bildutako eskarmentu horrekin guztiarekin, pausoa ematera ausartu naiz. Berta Martinez dut izena, eta Luma izena eman diot proiektu berriari.

Ireki berria dut ile-apaindegia, Trenbide kaleko 9. zenbakian, eta lan egiteko ilusio handiarekin nago, bezeroei nire onena emateko prest. Prestakuntza etengabean dihardut horretarako, nahi dudalako nire bezero izango direnei tratu pertsonalizatua ematea. Adin guztietako jendearekin lan egiteko gertu nago, izan emakume nahiz gizon, eta aholkularitza pertsonalizatua eskaintzen diet guztiei. Ondo ezagutzen ditut moda-modako orrazkerak eta tinteak, eta aparteko garrantzia ematen diot ilea behar bezala zaintzeari, horretarako dauden tratamendu askotarikoekin.

Zatoz Luma ile-apaindegira eta ahalegin guztiak egingo ditut behar duzun hori emateko. Ez zara damutuko.

☎ 747 424 542

TRENBIDE KALEA 9, ELGOIBAR

📍 [lumaileapaindegia.eus](https://lumaileapaindegia.eus)